



DEIALDIA

# NATEXPO 2015

Paris (Frantzia)

Egunak: 2015ko urriak 18tik 20ra.

Lekua: Hall 7 Paris Nord Villepinte -  
Paris, FRANTZIA.

Maiztasuna: Bi urtez behin.

Bisitarien profila: Produktu  
ekologiko, dietetiko eta kosmetiko  
naturalen sektoreko profesionalak.

Izena emateko epea:  
ostirala, 2015ko apirilak 17an.

Azokaren web orria:  
[www.natexpo.com](http://www.natexpo.com)

Informazio gehiago: Tel.: 94 470 65 00  
Nora Goitia: [nora.goitia@camarabilbao.com](mailto:nora.goitia@camarabilbao.com)

## DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartze eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izen-emate fitxa



Euskal elikadura industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, enpresen parte-hartze multzokatua antolatu dute Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak NATEXPO 2015 azokarako.

NATEXPO 2015 azoka **Parisen** izango da 2015ko **urriaren 18tik 20ra**.

# NATEXPO 2015 azokaren izaera

Erakusketa eremua: 15.000 m<sup>2</sup>

2013ko erakusketariak: 545 (%14 atzerriko erakusketariak)

2013ko bisitariak: 10.545 (%13a atzerritarrak, 64 herrialdetakoak)

Azokaren web orrialdea: [www.natexpo.com](http://www.natexpo.com)

Frantzian inoiz ez dira horrenbeste izan bio kontsumitzaileak: ia bi frantsesetik batek (%49) bio kontsumitzen du hilean behin gutxienez. Munduan, ia laukoiztu egin da hamar urtetan merkatu bio, ekologiko eta dietetikoak. Potentzial handiko merkatu hau garatzeko, topaketarik handiena Frantzian egitea proposatu du NATEXPOk, produktu bio eta ekologikoen eta elikadura-osagarrien profesionalen azokak.

Azokak sektoreka banatutako pabiloi bakarra hartuko du eta erraz identifikatzeko moduko lau eremutan banatuta egongo da:

- **Bio & Bon:** elikagaiak eta ardoak.
- **Forme & Équilibre:** produktu dietetikoak eta elikadura-osagarriak.
- **Beauté au Naturel:** produktu kosmetikoak eta higienekoak.
- **Solutions écologiques:** etxerako eta norberaren zaintzarako produktuak.



# Parte-hartze baldintzak

[Joateko konpromisoa](#)

[Euskal Herrian egindako produktuak](#)

[Ebaluazio-inkesta](#)

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden **ekoizpen-enpresek** bakarrik parte har dezakete azoka honetan.

#### **Azoka baino lehen:**

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-egunean, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.

#### **Azokak iraun bitartean:**

- Ikusgai jarriko diren produktuak **Euskal Herrian egindakoak** izango dira. Ezingo da, inolaz ere, beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztu.
- Azokak iraun bitartean erakusmahai egunero eta ordutegi osoan zainduko da.
- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasoko dira eta erakusmahaiaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

#### **Azokaren ondoren:**

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eskatzen denean.

# Parte-hartze eredua eta prezioa

1 MOTAKO enpresen kuota = 1.025 € + BEZa (%21)

2 MOTAKO enpresen kuota = 1.640 € + BEZa (%21)

3 MOTAKO enpresen kuota = 2.460 € + BEZa (%21)

## Parte-hartze eredua

2015ko edizioan, 54m<sup>2</sup> -ko eremua edukiko du Eusko Jaurlaritzak; 7. pabiloian, "Bio & Bon" gunearen barruan, kalitateko elikagai eta edariak ekoizten dituzten Euskal Elikadura Industriako enpresak hartuko dituena.

Parte hartzeko aukera bakarra eskainiko da:

- **Banakako erakusmahaia.**

*Oharra:*

1. *Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektoreko produktua transformatzen eta komertzializatzen duten enpresen parte-hartzea bultzatuko da.*
2. *Erakusmahaiaren neurri zehatzak eskaera baieztatzen den unean zehaztuko dira.*

## Parte-hartzearen prezioa

NATEXPO 2015 azokan, sektorearen babesari eutsiko dio Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, baina EAEko lehen sektoreko produktua eraldatzen eta komertzializatzen duten enpresen parte-hartzea sustatuko du, jarraian adierazitako moduan:

- **1 MOTAKO** enpresen kuota = **1.025€ + BEZa**
- **2 MOTAKO** enpresen kuota = **1.640€ + BEZa**
- **3 MOTAKO** enpresen kuota = **2.460€ + BEZa**

Enpresen sailkapena:

- **1 motako enpresa** = EAEko lehen sektoreko produktuak eraldatzen eta komertzializatzen dituen enpresa.
- **2 motako enpresa** = Tokiko produkturik ez dagoelako, EAEko lehen sektoreko produkturik eraldatzen edo komertzializatzen ez duen enpresa.
- **3 motako enpresa** = Tokiko produkturik egon arren, EAEko lehen sektoreko produkturik eraldatzen edo komertzializatzen ez duen enpresa.

Parte-hartze kuota ordainketa bakarran egingo da. Faktura eskaera onartu ondoren egingo da.

# Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate fitxa, behar bezala beteta

Ordainketa-egiaztagiria

Izena emateko azken eguna: 2015ko apirilaren 17an

Leku-kopurua mugatua denez, parte hartu nahi izanez gero izen-emate fitxa bete eta lehenbailehen bidali **nora.goitia@camarabilbao.com** helbide elektronikora.

Zure eskaera aitzat hartzeko, honako agiri hauek bidali behar dituzu adierazitako helbidera:

## 1. Honekin batera doan izen-emate fitxa, behar bezala beteta.

Fitxa horretatik hartuko dira azokako katalogo ofizialerako, erekusmahaiaren errotulorako eta gainerako promozio-ekintzetarako datuak.

## 2. Izen-emate kuotaren ordainketa-egiaztagiria.

Ordainketa bankuko transferentzia bidez egingo da:

**Kontzeptua:** "Enpresaren izena + NATEXPOO 2015".

**Kontu zenbakia:** ES97-0182-1290-36-0000017727 (BBVA) BILBOKO MERKATARITZA GANBERAren izenean.

**Izena emateko azken eguna:** ostirala, 2015ko apirilaren 17an.

BILBOKO MERKATARITZA GANBERAren Finantza Sailak **izena emateko azken egunetik 15 egunera bidaliko du dagokion zenbatekoaren faktura.**

### **GARRANTZITSUA:**

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea.


Zure parte-hartzearen baieztatzea izena emateko epea behin amaituz gero egingo da.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertzeke eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, enpresa hautatuak eskubidea edukiko du alde aurretik ordaindutako izen-emate kuota itzul diezaioten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaioten.

# Eskeinitako zerbitzuak

aurkibidera itzuli 

[1\) Eremuaren kontratazioa](#)

[2\) Pabiloiaren dekorazioa](#)

[3\) Pabiloia mantentzeko lanak \(garbiketa, elektrizitatea, ura eta abar\)](#)

Eusko Jaurlaritzak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

## [Eremuaren kontratazioa](#)

Enpresa erakusketarien banakako erakusmahai pertsonalizatueta banatuko den sustapen-eremu batekin hartuko da parte.

## [Pabiloiaren dekorazioa](#)

Erakusmahaiaren dekorazioa eta oinarrizko elementuak berdinak izango dira Euskal Herriko pabiloiko erakusketari guztientzat; honako hauek, alegia:

**Banakako erakusmahai:** mahaia eta 4 aulki, mostradorea, enpresaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia apalekin.

## [Pabiloia mantentzeko lanak \(garbiketa, elektrizitatea, ura eta abar\)](#)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketaz, elektrizitateaz, uraz eta, oro har, pabiloia behar bezala zaintzeaz. Dena dela, enpresa bakoitza arduratuko da bere erakusmahai txukun edukitzeaz.

Potentzia elektrikoak mugak eta gehieneko kontsumoak edukiko ditu erakusmahai bakoitzeko; bertara joateko izapideak prestatzen hasitakoan jakinaraziko zaizkie erakusketariei.

*Oharra: Oinarrizko altzarien, elementu elektrikoaren edo standen behar elektrikoaren inguruko edozein aldaketa, kostuaren gehitzea edo aldatzea suposatzen duena, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusketariari; eta horrek ordainduko du horren kostu erantsia.*

[jarraitu](#) 

# Eskeinitako zerbitzuak

- [4\) Salgaien garraioa](#)
- [5\) Hotz-kamerak eta gainerako etxetresna elektrikoak](#)
- [6\) Azokako katalogo ofizialean sartzea](#)
- [7\) Komunikazio eta zabaltze kanpaina](#)
- [8\) Merkatuari buruzko informazioa](#)

## [Salgaien garraioa](#)

Eusko Jaurlaritzak salgaien garraio multzokatua antolatuko dute, garraiolari ofizialak adierazitako leku komunetik erakusmahairaino.

Salgaiak garraiatzearen kostua garraiolariak fakturatuko dio zuzenean enpresa erakusketariari.

Unean-unean adieraziko dira garraio-enpresa esleipendunaren datuak.

Enpresek bertan egon beharko dute adierazitako orduan salgaiak jasotzeko eta azoka inauguratu baino lehen standa apaintzeko nahiko denbora edukitzeko.

## [Hotz-kamerak eta gainerako etxetresna elektrikoak](#)

Hotz-kameren edo erakusketariak eskatutako bestelako etxetresna elektriko osagarrien alokatzea erakusketariaren kontura izango da. Nolanahi ere, Saila, enpresen zerbitzura dago, hornitzaileak zuzenean enpresa erakusketariari fakturatuko dion zerbitzu horren kontratazioa koordinatzeko.

## [Azokako katalogo ofizialean sartzea](#)

Beharrezko izapideak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak enpresa erakusketari bakoitza azokaren web orrialde eta katalogo ofizialean inskribatuta izateko (IZEN-EMATE FITXAtik jasotako datuak agertuko dira).

## [Komunikazio eta zabaltze kanpaina](#)

Eusko Jaurlaritzak azokako gure presentziari buruzko komunikazio-kanpaina egingo dute prentsa espezializatuaren eta balizko erosleen artean, eta gure enpresak ikustera eta gure produktuak dastatzera gonbidatuko dituzte.

## [Merkatuari buruzko informazioa](#)

Eusko Jaurlaritzak merkatuari buruzko informazioa emango die enpresei, azoka prestatzeko.

# Izen-emate fitxa

NATEXPO 2015

Eusko Jaurlaritzaren pabiloian egon nahi dut, NATEXPO 2015 azokako erakusketari, ondorengo baldintza hauetan:

**Banakako erakusmahaia**

## Enpresaren izena, KATALOGO OFIZIALERA KO:

Oharra: izen hau erabiliko da sustapen-ekintza guztietan (ERAKUSMAHAIAREN ERROTULUAN barne).

## Enpresaren izen soziala:

I.F.K.:

Nek. eta Elik. Ind. Erregistroa (R.I.A.):

Helbidea:

Kalea / Plaza / Hiribidea:

P.K. – Herria:

Probintzia:

Telefona:

Helbide elektronikoa:

Faxa:

Web orria:

Azokaren koordinazioaren arduraduna:

Sakelako telefonoaren zenbakia:

Erakusgai jarriko diren produktuak eta markak:

Produktua

Marka

Produktua	Marka

Data, sinadura eta enpresaren zigilua: